

8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresan funtsezko baliabide tangible edo hautemangarriak honako hauek dira. Hasteko, aipatu bezala Dekathlon gure hornitzaile nagusia izango denez, beraiek salduko dizkigute alokatuko ditugun materialak. Hau gure funtsezko eta beharrezko baliabide bat da enpresa aurrera ateratzeko. Horrez gain, DHL garraio bide enpresarekin baita ere kolaborazio bat egingo dugu. Honela, bezeroek nahi duen lekura materiala eramateko aukera izango du. Bi baliabide hauek, ezinbestekoak direla uste dugu gure enpresa aurrera ateratzeko.

Bestetik, baliabide intangible edo ukiezinak beste hauek izango dira. Lehenik eta behin, lehen aipatu bezala, webgune bat edukiko dugu, non gure produktuak ikusgai eta salgai egongo diren. Hau, gure baliabide ukiezin garrantzitsuenetako bat izango da; izan ere, bezeroek gure lokalera etorri gabe alde zurratik nahi duten materiala alokatu dezakete, honela denda fisikora etortzean bakarrik materiala hartu eta ordaindu besterik ez dute egin behar. Webgunea sortzeko, organizatzeko eta gure gustora apaindu eta edertzeko, aplikazio informatiko bat erosi eta instalatu behar dugu. Gainera, teknologia guzti hau erabili eta aurrera ateratzeko wifi sare bat behar dugu, sarean ahalik eta azkarren mugitzen uzten diguena. Horretarako, Moviestar mugikor konpainiarekin kontaktuan jarri behar gara hau dena eskuragarri eta prezio egokienean eskuratu ahal izateko.

Horrez gain, publizitatea ere edukiko dugu, bezeroek gure enpresa ezagutzeko, hortaz, instagram sare sozialeko jarraitzaile asko dituen pertsona batekin kontaktuan jarriko gara. Pertsona honek, gure enpresa publizitatearen truke diru kantitate bat eman behar du, hau, funtsezko baliabide bat da jendeak gu ezagutarazteko. Alaber, turismo bulegoekin egindako kolaborazioari esker, horrelako txango bereziak egin nahi dituztenengandik gertuago egotea lortuko dugu.